



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainak 11

Vitoria-Gasteiz, 11 de junio de 2019

Lehendakaritza

**BASQUE CENTER FOR APPLIED MATHEMATICS (BCAM)
ZENTROARENTZAKO LAGUNTZA, ADIMEN ARTIFIZIALAREN ARLOKO BI
PROIEKTU GARATZEKO**

- **BCAM bikaintasun-zentro gisa aitortuta dago, eta bere misioa da matematikaren ezagutzaren mugetan ikerketa garatzea eta arlo ezberdinetan aplikatzea, besteak beste, adimen artifizialean.**

Gobernu Kontseiluak erabaki du 975 mila euroko dirulaguntza ematea *BCAM – Basque Center for Applied Mathematics* zentroari. Laguntza Lehendakaritzak kudeatutako Berrikuntza Funtzak emango du, eta 2019an eta 2020an adimen artifizialaren arloko bi ikerketa-proiektu garatzeko izango da.

BCAM matematika aplikatuen mugetan diziplinarteko ikerketa egiten duen zentroa da, Eusko Jaurlaritzak 2008an sustatu zuen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema indartzea eta talentudun zientzialariak prestatzea eta erakartzea ditu helburu, gizarteak haien emaitzen bikaintasuna aitortu dezan.

Gaur egun zentroa Oinarritzako Ikerketa eta Bikaintasun Zentroen kategorian egiaztatuta dago Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen baitan. Horrez gainera, “Severo Ochoa” Bikaintasun Zentro gisa ere ofizialki aitortu du Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren mende dagoen Estatuko Ikerketa Agentziak.

Gaur onartu den laguntza, 975.653 eurokoa, osasunaren eta energiaren arloko bi ikerketa-proiektu garatzeko izango da, Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP) eta RIS3 Euskadi espezializazio adimentsurako estrategiaren egungo lehentasunetako bi izanik.

Bi proiektuen helburua Euskadik adimen artifizialaren arloan nazioartean duen lekua sendotzea da, egungo ekonomian eta gizartean azkarren sartzen ari den eta gorabidean dagoen funtsezko teknologietako bat izanik.

Lehendakaritza

GIZA ESKUBIDEEN RENÉ CASSIN SARIAREN DEIALDIA EGIN DUTE

Jaurlaritzaren Kontseiluak gaur onartu du René Cassin sariaren aurtengo deialdia egitea. Sari hori Jaurlaritzak ematen du Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritzaren bitartez.

Sari horren helburua da publikoki goraipatu eta saritzea ibilbide pertsonal nahiz profesionalarekin gure gizartean giza eskubideak sustatzeko, defendatzeko eta zabaltzeko konpromisoaren lekukotza ematen duten pertsonak eta taldeak.

12.000 euroko diru-zenbatekoak eta ohorezko aipamen batek osatuko dute saria eta alor horretan nabarmentzen diren pertsona fisiko edo juridiko publiko nahiz pribatuek jaso dezakete saria.

Hautagitzak aurkezteko epea hilabetekoa da, deialdi ebazpena EHAAan argitaratzen den egunaren biharamunean kontatzen hasita.

Saria Eusko Jaurlaritzak sortu zuen 2003an eta Rene Cassin jaunaren oroimenez ezarri zen sariaren izena. René Cassin Baionan 1887an jaiotako legelari eta epaile bat izan zen, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren inspiratzaile nagusia izan zena 1948an, eta 1968an Bakearen Nobel saria eman zioten; Giza Eskubideen Estrasburgoko Nazioarteko Institutua sortzeko baliatu zuen Nobel saria.

Saria Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala egin zen egunean (abenduak 10) emango da.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

1,25 MILIOI NEKAZARITZAKO EKOIZPEN TEKNIKA IRAUNKORREN BIDEZ LABORANTZA ESTENTSIBOAK DIBERTSIFIKATZEKO

- Laguntzen zenbateko hau pasa den ekitaldian helburu berbererako aurreikusitakoak baino lau aldiz handiagoa da
- Kontseiluaren bilera berean, 404.000 euro onartu dira nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreko elkarte eta federazio profesional eta enpresarialentzat

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak nekazaritza eta ingurumenaren alorrean nekazaritzako ekoizpen teknika iraunkorren bitartez laborantza estentsiboak dibertsifikatzeko 2019ko laguntzak iragartzeko emandako agindua onartu du Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak. Laguntzen zenbateko globala, zeina exekutibo autonomoaren aurrekontuetatik datorren, 1.250.000 eurokoa da, eta hektareako aurreikusten den gehieneko laguntza 600 eurokoa.

Euskal Herriko Landa Garapeneko 2015-2020 aldirako Programaren (OSOA) barruko laguntzak dira, eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzak dituen estrategietako bat, helburua izanik lehen sektorearen lehiakortasuna eta iraunkortasuna hobetzea, laborantza teknikoki ordenatuta, baliabide naturalak zentzuz ustiatuta eta nekazarien errentak mantenduz eta hobetuz ingurunea babestuta. Hala, bultzatu nahi da ekoizpen jardueren dibertsifikazioa, laborantzen errotazioak eta aldeko baldintza fitosanitarioen ustiapena.

Baldintzak

Ustiatzearen titularrek agindu behar dute gutxienez 5 urteko epean nekazaritza eta ingurumenaren alorrean eskatzen zaizkien konpromiso eta teknikak aplikatuko dituztela. Hori izango da, hain justu, nekazaritza eta ingurumeneko kontratua, ondorio guztietarako. Agindutako aldia bukatu eta gero, eta dagokion araudiak eta aurrekontuetan erabilgarri dagoenak egiten uzten badute, laguntza urtebete luzatzeko eskatu ahal izango da.

Laguntzen onuradunak izan daitezke nekazaritza ustiatzearen titularrak diren pertsona fisiko edo juridikoak, edo legez eraturako nekazari taldeak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan lursailak baldin badituzte.

Lursail horiek dagokien erregistro ofizialean erregistratuta egon behar dira, eta ustiatzearen aurreikusitako laborantza guztietatik gutxienez 2 ha laborantza estentsiboak izan behar dira, ha 1 baino gutxiagoko laborantza multzoak ezingo baitira diruz lagundu. Hauek dira aurreikusitako laborantzak:

- Udako laborantza ureztatuak diren lekale haziak gizakien kontsumorako.
- Udako laborantza ureztatuak diren barazki estentsiboak
- Hazitarako patata eta gizakien kontsumorako patata
- Azukrerako erremolatxa.

Eskatzaile bakoitzak jasoko duen laguntza kalkulatzeko, nekazaritza eta ingurumeneko metodoekin landutako azalera unitateko zenbateko jakin batekin biderkatutako da. Unitateko zenbatekoa 240 eta 60 euro artekoa izango da hektareako, laborantza motaren eta hartzen diren derrigorrezko zein aparteko konpromisoen arabera. Laguntza ezin da inola ere 600 eurokoa baino handiagoa izan hektareako.

Eskariak Nekazaritza eta Abeltzaintzako Zuzendaritzara bidaliko dira, eta, aurkeztu, Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetan edo, bestela, Legeak aurreikusten dituen lekuetako edozeinetan aurkeztuko dira. Kontuan hartuko dira eta baliozkotzat joko dira 2019ko otsailaren 1etik “Eskaera Bakarra”-ren aurkezpen epea amaitu arte xede horrekin aurkeztutako laguntza eskaerak.

Elkarteak programa

Era berean, Euskadiko nekazaritza, arrantza eta elikaduraren sektoreetako profesionalen eta enpresarien elkarte eta federazioetarako 2019ko laguntzak arautzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak eman duen agindua onartu du Eusko Jaurlaritzako Kontseiluak. Laguntza horietarako 404.000 euro baino gehiago onartu dira, honela banatuta:

- Nekazaritzaren sektorerako: 124.000 euro.
- Elikaduraren sektorerako: 100.000 euro.
- Arrantzaren sektorerako: 180.372 euro

Diruz lagundu daitezkeen gastuak ordezkaritzakoak, funtzionamendukoak (bulegoko pertsonak, bulegoen alokairuak, aseguru primak, garbiketako eta komunitateko gastu orokorrak, bulego materiala, argitalpen kuotak, kontserbazioa eta konponketak...), azterketak eta izaera esperimentaleko jarduerak egiteko gastuak eta azoka eta lehiaketak antolatzearen ondoriozkoak.

Eskaerak egiteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita. Laguntza eskabideak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren bulegoetara bidaliko dira –Donostia-San Sebastián kalea, 1. Vitoria-Gasteiz– edo Administrazio Prozedura Erkideak aurreikusten dituen bideetako edozeinetatik aurkeztuko.

Enplegua eta Gizarte Politikak

EUSKO JAURLARITZAK EUSKADIKO GAZTE-EKIPAMENDUEN SAREA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK DEITU DITU

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren aginduari, Euskadiko **gazte-ekipamenduen sarea sustatzeko dirulaguntzen** deialdia egiteko. Helburua Euskadiko Gazte Ekipamenduen Sarea eratzen duten toki-eremuko gazte-ekipamenduak sortu, zabaldu edo hobetzea da. Deialdiak **290.000 euroko** zuzkidura du, eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei zuzentzen zaie.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa da, EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita. Deialdiak **290.000 euroko** zuzkidura du, eta honela banatzen dira: ordainketa-kreditu bat 2019an, 145.000 €-koa, eta konpromiso-kreditua, 2020 ekitaldirako, beste 145.000 €-koa.

Diruz lagundu daitezkeela ulertzen da 12 eta 30 urte bitarteko gazteentzako ekipamenduak hartzeko higiezin bereziak **eraikitze, erreformatzeko, egokitzeko edo zabaltzeko obretarako proiektuak prestatzeko gastuak**, bai eta 2019 ekitaldian obra horiek gauzatzeko gastuak edo kostua ere.

“Toki-eremuan gazteentzako **ekipamenduen** kopurua eta kalitatea pixkanaka areagotzeak hobetu egiten ditu gazteen bizi-baldintzak”, esan du Artolazabalek.

Deialdi berriaren aldaketa nagusiak, aurreko urteen aldean: arrazoiz exiji daitekeena gainditu dezaketen erakunde onuradunen betebeharrak batzuk ezabatu dira, eta gastuak justifikatzeko dokumentazioa aldatu da eta, horrela, **justifikazio-kontu sinplifikatua sartu da** dirulaguntza justifikatzeko baliozko bitarteko gisa.

Era berean, dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa murriztu egiten da **75.000 eurotik 60.000 eurora**; kopuru hori, azken deialdien aurrekariak aintzat hartuta, erakunde eskatzaileen finantzaketa-beharretara egokitzen dela uste da. Halaber, arau-hausteak graduatzeko kontuan hartu beharreko **gutxieneko exekuzioa % 60tik % 70era** areagotu da. Bestela, deialdia aurreko ekitaldikoaren oso antzekoa da.

Aurreko deialdian, 2018 ekitaldikoan, **24 eskabide erregistratu ziren** eta **658 € eta 75.000** bitarteko **18 dirulaguntza eman ziren**, honako udal hauentzat: Alegia, Amezketa, Anoeta, Arraia-Maeztu, Bakio, Barakaldo, Bilbao, Donostia / San Sebastián, Erandio, Etxebarri, Getxo, Legazpi, Lekeitio, Markina-Xemein eta Mutiloa. Besteak beste, obrak gazte-ekipamenduko gizarte- eta kultura-zentroetan klimatizazioa eta segurtasuna jartzeko hobekuntzetarako eta horien egokitzapenerako ziren, klimatizazio-ekipoak aldatzeko edo antzinako merkatuak gazte-ekipamenduetarako erreformatzeko obrak egiteko.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

1,6 MILIOI ENPRESEI BIDERATUTA, INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOETARAKO

Gobernu Kontseiluak onartu egin du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren, Iñaki Arriolaren, agindua; horren bidez, ekitaldi honetarako diru-laguntzak deitu dira, enpresei zuzenduta, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko. Aginduak honako diru-laguntza ildo hauek aurreikusten ditu:

- a) Ingurumenaren babesaren arloan Europar Batasunaren arauak gainditu edo arauditik eza egonez gero babesa areagotu ahal izateko inbertsioetarako laguntzak.
- b) Batasunaren etorkizuneko arauetara aurretiaz egokitzeko laguntzak.
- c) Ingurumen-azterlanetarako laguntzak.
- d) Hirugarrenek sortutako hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko inbertsioetarako laguntzak.
- e) Lur kutsatuak oneratzeko laguntzak, ezin bada identifikatu kutsaduraren erantzulea, edo ezin bada legez hartu birgaitzearen finantzaketaren arduraduntzat, «nork kutsatu, hark ordaindu» printzipioaren arabera.
- f) ETEentzako laguntzak, ingurumen-arloan aholkularitza-zerbitzuak emateko.

Deialdirako aurrekontu-zuzkidura 1,6 eurokoa da; 848.000 euro prozedura arruntaren bidez esleitutako proiektuetarako esleitzen dira, eta gainerako 752.000 euroak, prozedura sinplifikatuaren bidez esleitutako proiektuetarako. Laguntza horiek Eskualde Garapeneko Europako Funtsarekin batera finantzatzen dira

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Esleipen-prozedura bakoitzean hartzen den ebazpena gehienez sei hileko epean eman eta jakinaraziko zaie interesdunei, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Ogasun eta Ekonomia

2020KO AURREKONTUAREN JARRAIBIDE EKONOMIKOEN GENERO IKUSPEGIAREN ALDEKO APUSTU SENDOA JASOTZEN DUTE

- Aldaketa koalitatiboa emango da: genero eraginari buruzko txostenak aurrekontu proiektuaren definizioaren aurretik egingo dira
- 2017ko Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoan adostutako aurrekontuen egonkortasunerako helburu guztiak beteko ditu Eusko Jaurlaritzak 2020an
- Finantzaren ikuspegitik Jasangarriak diren Inbertsioek arindu eta zabaldu egiten dute aurrekontuaren marjina
- Eusko Jaurlaritzak bete egingo du 2020an langabezia tasa %10etik behera eramateko konpromisoa, aurreikuspena %9,7an jarritz

Gobernu Kontseiluak 2020ko EAeko Aurrekontu Orokorren aurrekontu jarraibideak onetsi ditu gaur. XI. legealdiko azken aurrekontuak dira, eta 2016-2020 Gobernu Programari forma ematen dion Giza Garapen Jasangarrirako Estrategia bultzatzen jarraituko dute. “BPGtik haraindiko ikuspegia” eskainiko duten eta genero ikuspegiari garrantzi berezia emango dioten aurrekontuak. Giza Garapen Jasangarrirako planteamenduak hazkunde inklusiboaren aldeko apustua egitea inplikatzeko du, gizarte kohesio eta ingurumen jasangarritasun irizpideetan oinarritutako dena, oparotasunaren palanka gisa ekonomia bultzatuko duten ekintzei lehentasuna emanez.

Horrela, 2020ko aurrekontuak hainbat helburu ditu: soldatan, gizartean, belaunaldien artean eta arlo digitalean dagoen genero arrakala murriztea; hezkuntzan ekitatea, bikaintasuna eta inklusioa, eta pertsonen enplegagarritasuna bultzatzen duten jarduketari lehentasuna ematea; eta klimaren aldaketaren kontra borrokatzea eta mugikortasun jasangarria sustatzea.

GENERO IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUAK

Eusko Jaurlaritzak jauzi koalitatiboa eman gura du aurrekontuan genero ikuspegia sartzeari dagokionez. Orain arte, genero txostenak aurrekontua definitu ondoren egiten ziren eta, Azpiazu Sailburuak Islandiara egin duen bisita ofizialaren ondoren, aldaketa garrantzitsua egitea planteatu da: sail bakoitzak egin behar dituen genero eraginari buruzko txostenak aurrekontua definitu aurretik egingo dira, baliabideak optimizatzeko eta politika publikoek arlo horretan duten zeharkako eragina zehaztasun handiagoz baloratu ahal izateko. Datorren ostegunean, ekainaren 13an, Gobernuak kargu guztiei zuzendutako prestakuntza saioa deitu da, lanerako formula hori azaltzeko. Irekiera Azpiazu Sailburuaren eta Izaskun Landaida Emakundeko Zuzendari Nagusiaren eskutik etorriko da.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko politikak gauzatzen jarraitzeko, soldata arrakala ezabatzeko, indarkeria matxistaren kontra borrokatzeko eta familietako kontziliazioa eta erantzukidetasuna hobetzeko konpromisoari eusten zaio.

Jarraibideetan jasotzen den beste alderdi bat biztanleriako sektore desberdinen artean dagoen errenta aldea da. Atzeraldi Handian zehar, soldaten bilakaerak oso portaera desberdina izan du. Aurrekontuak soldaten artean alde txikiagoa egotea eta kalitate maila altuagoko enpleguetarako gazteak eta emakumeak kontratatzea sustatuko duten neurriak bultzatuko ditu. Soldata arrakalak gizarte arloko arrakala dakar eta, horregatik, umeen pobrezia murrizketa, eskolaratze goiztiarra, eskola adineko ekitatea eta gizarteratzea, errenta eta adin irizpideetan oinarritutako etxebizitzarako sarbidea eta, kaltetutako gunetan batez ere, hiri birgaikuntza sustatuko dituzten neurriak bultzatuko dira.

Beste alde batetik, 2020ko Aurrekontua gazteengan ere zentratuko da. Belaunaldien arteko arrakala arintzeko xedez, gazteen laneratzea erraztu, enplegarritasuna hobetu eta emantzipazioa sustatuko duten neurri espezifikoak ezartzen jarraituko da.

Eusko Jaurlaritzak badaki giza kapitalaren garapena funtsezkoa dela, biztanleria zahartzen ari den testuinguruan batez ere, etorkizunean, herrialdean aberastasuna sortzeko beharrezkoa den eskulan eskasia egon daitekeelako. Horregatik guztiarengatik, hezkuntza gero eta protagonismo handiagoa ari da hartzen Jaurlaritzaren lehentasunen artean.

Ekonomiak, herritar guztientzako oparotasunaren palanka gisa planteatzen ditu aurrekontu jarraibide horiek. Horretarako, lehentasuna emango zaie finantzaketa tresnen garapenari, enpresetan parte hartzeari, Euskadiko RIS3 izenekoarekin erlacionatutako proiektu estrategikoen garapenari, I+G+Bari (aurrekontua %5 handitzeko konpromisoari eutsiz) eta enpresen nazioartekotzea laguntzeari.

HAZKUNDE MODERATU AGERTOKIA Euskadiko lauki makroekonomikoa 2018-2020

	2018	2019	2020
BPG	2,8	2,2	2,0
Azken kontsumoa	2,4	2,1	1,9
Etxeetako kontsumoa	2,6	2,2	1,9
Administrazio Publikoen kontsumoa	1,7	1,6	1,7
FBC	4,1	3,5	3,7
Barne eskaria	2,8	2,4	2,3
Kanpo eskariaren ekarpena	-0,1	-0,3	-0,3
BPG nominala	3,8	3,6	3,9
BPG deflatorea	1,0	1,4	1,8
Enplegua	2,1	1,5	1,3
Langabezia tasa	10,3	9,9	9,7

Iturria: Ekonomia eta Plangintza zuzendaritza

Laukiak, legealdi honetan langabezia tasa %10etik behera eramateko Eusko Jaurlaritzak duen erronka betetzen duen aurreikuspena erakusten du.

Inguruko ekonomiak

Hala ere, euskal ekonomiaren etorkizuna ez dago merkataritza harremanetan zalantzak sortzen dituzten arriskuetatik kanpo. Horrela, Estatu Batuek Txinari eta Europako herrialdeei egindako arantzel arloko mehatxuak oztopoa izan daitezke nazioarteko merkataritzaren garapenerako. Txinako ekonomiaren indarrari buruz dauden zalantzek eta Erresuma Batuaren irteeraren inguruko akordio faltak ere ziurgabetasunak sortzen dituzte ekonomia arloko eragileen artean. Modu berean, petrolio merkatuaren hegakortasunak herrialde inportatzaileen hedapena moteldu dezake. Amaitzeko, txanpon politika arloko erabakiak ere oso garrantzitsuak izan daitezke hazkunde moteleko unean ekonomiari laguntzeko.

Faktore horiek guztiak kontuan izanda, 2019an munduko ekonomia %3,3 haziko dela aurreikusten du NDF-FMIk. 2018an %3,6 hazi da. Beraz, urte honetarako moteltze txikia aurreikusten da, baina berreskuratzea 2020an hel daiteke (%3,6koa), garapen bidean dauden herrialdeen bultzada handiagoaren eskutik.

Garatutako herrialdeei dagokienez, aurrerapena 2019ko %2,2tik 2020ko %1,9ra igaroko litzateke. Beren ziklo ekonomikoaren oso fase aurreratuan dauden Estatu Batuetarako aurreikusten den moteltzea da hazkundearen leuntze horren funtsezko arrazoietako bat. Euroguneak 2018an izandakoen oso antzekoak diren balioak jasoko ditu (%1,8). Aurten moderazio arina ezagutuko dugu (%1,6) eta datorren urtean berreskuratze txikia (%1,7). Munduko ekonomiak dituen eta aipatu ditugun arriskuei, automobilgintzak Europan jasan dituen zailtasunak gehitu behar zaizkio, isurketen arautegi berrira egokitu behar izan duelako. Horrek asko moteldu du Alemaniako industriaren aurrerapena, eta baita sektore horrekin oso erlazionatuta dauden beste batzuetakoa ere, Euskadikoa, besteak beste. Dena den, egoera hori iragankorra izatea eta urtean zehar Alemaniak bere tonua berreskuratzea aurreikusten da.

Espainiako ekonomiak euroguneakoak erakusten duena baino indar handiagoa erakusten du. 2018an izandako %2,5eko hazkundetik aurtengo %2,3ra eta datorren urteko %2,1era igaroko da. Moneta arloko agintariak zabaldu dituzten mezuak kontuan izanda, badirudi Euriborrak ez duela aldaketa handirik izango azken urteetako balioekin alderatuta. Horrela, 2019rako -%0,1eko batez besteko interes tasa aurreikusten da, negatiboa oraindik, eta %0,2koa 2020rako. Euroaren eta dollarraren arteko trukean ere ez da aldaketa handirik aurreikusten, eta ez da parekotasunerako inolako mugimendurik hautematen. Petrolioak nazioarteko merkatuetan duen hegakortasunak prezioak baldintzatzen ditu, baina aipatutako bi urteetan ez da berreskuratze azpimarragarririk aurreikusten.

Inguruko aldagaien portaera

	2018	2019	2020
Euriborra	-0,3	-0,1	0,2
Truke tasa (euroa/dolarra)	1,181	1,148	1,183
OCDEko BPGren Hazkundera	2,4	2,2	1,9
Euroguneko BPGren Hazkundera	1,8	1,6	1,7
Espainiako BPGren Hazkundera	2,5	2,3	2,1
Espainiako kontsumo pribatuaren deflatorea	1,6	1,4	1,5
Espainiako ondasunen esportazioen deflatorea	1,3	1,5	1,2

AURREKONTU EGONKORTASUNARI ETA FINANTZA JASANGARRITASUNARI BURUZKO ARAUTEGIA

2017ko uztailaren 19an egin zen Kontzertu Ekonomikoaren Batzorde Mistoan defizitaren eta Estatuarekiko zorraren azken bidea adostu zen. Hori kontuan izanda, 2020ko defizita BPGren %0koa izan beharko litzateke. Halaber, 2019rako gehieneko zorraren helburua %13,8koa izan beharko litzateke, 2020an %13,2ra jaitsiz.

2020an, Eusko Jaurlaritzak Batzorde Mistoan adostutako helburu guztiak beteko ditu, hau da:

- Zero defizita
- Zorra %13,2an uztea

2020ko aurrekontu testuingurua 2019koa baino mugatuago dago, egonkortasun eskakizunak direla eta, baina Eusko Jaurlaritzak superabita duenez, Finantzaren ikuspegitik Jasangarriak diren Inbertsioak gauzatu ditzake, horiek ez baitute gastu erregelan konputatzen eta aurrekontuaren marjina arintzen eta zabaltzen dute.

Langileen gastuek duten pisu erlatibo handia eta zerbitzu publikoak hobetzeko duen garrantzia kontuan izanda, oso kontuan izango da langileen ordainketen hazkundera jasangarritasunean oinarrituta egin beharko dela beti.

Ogasun eta Ekonomia

**GOBERNUAK 3,9 MILIOI EURO BIDERATU DITU SEGURTASUN ETA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILETARA,
2019rako LUZATUTAKO AURREKONTUETAN SARTU GABEKO
JARDUERETARAKO**

Gobernu Kontseiluak gaur onartu du Segurtasun Sailarentzat eta Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailarentzat kreditu globala 3.967.211 euroan handitzea, 2019rako luzatutako aurrekontuan jaso gabeko jarduerak finantzatzeko.

2018ko aurrekontua 2019rako luzatu izanaren ondorioz, luzatutako aurrekontuetan nahiko diru-hornidura ez duten jarduerak finantzatu behar dituzte EAeko Administrazioako hainbat Sailek.

Segurtasun Saila	771.750 €
Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila	3.195.461 €
GUZTIRA, KREDITU GLOBALA HANDITZEA	3.967.211 €

Hezkuntza

DEKRETUA, IKASTETXEETAKO HIZKUNTZA NORMALIZAZIOKO ULIBARRI PROGRAMA ARAUTZEN DUENA

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan hizkuntza normalizazioko Ulibarri Programa arautzen duen Dekretua.

Dekretu berriak aurrekoarekiko dakartzan berritasunik esanguratsuenen artean nabarmentzekoa da honako hau: arau berriarekin, Ulibarri Programaren baitan garatzen diren hizkuntza normalizazioko proiektuak ikastetxeko Hizkuntza Proiektuaren diseinuarekin lotu behar direla. Izan ere, egun pentsaezina da euskararen erabilerarako normalizazio proiektu baten garapenak harremanik ez izatea goiko maila batean dagoen Hizkuntza Proiektuan hartzen diren erabakiekin. Era horretan, normalizazio proiektuak (orain arte eskola-orduetatik kanpo eragiten zuenak) eskola-orduetan ere eragin behar du, euskararen didaktikarekin eta erabilitako metodologiarekin erlazionatuta dauden eremuak indartuz. Dekretu berriak egiten duen beste doikuntzetako bat da Ulibarri Programari eranstea genero-ikuspegia kontuan hartzen duten ekimenak.

Dekretu berri hau indarrean sartzearekin indarririk gabe geratuko da abenduaren 23ko 323/2003 Dekretua, hizkuntza normalizazioko Ulibarri Programa arautzen duena.

Ulibarri Programa

Ulibarri Programaren baitan garatzen diren hizkuntza normalizaziorako proiektuek eskoletako egunerokoan euskararen erabilpena sustatzea dute helburu nagusia. Ikastetxe hauek, eragile guztien artean euskararen erabilera sustatzeko proiektu bat adosten dute. Ikastetxeko Normalkuntza Proiektua egiteko, egoera aztertu eta diagnosis egiten dute zentro hauek. Ondoren, lau urterako proiektua zehazten dute, eremuz eremu honako hauek definituz: helburuak, abiatuko diren jarduera motak, arduradunak, ebaluaziorako adierazleak eta denboralizazioa. 2018-2019 ikasturte honetan, Euskadiko 410 ikastetxek hartzen dute parte Ulibarri programan: 232 ikastetxe publikok eta 178 itunpeko.

Hezkuntza

35,2 MILIOI EURO HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN UNITATEAK SORTZEKO, ITUNPEKO IKASTETXEETAN

- **2018-2019 ikasturtean, 610 profesional arduratu dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleez itunpeko ikastetxeetan, deialdi honen bidez**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran onartu du, Hezkuntza sailburuak proposatuta, 2019-2020 ikasturterako hezkuntza berezirako unitateak zehaztu ditzaten itunpeko ikastetxeei dei egiten dien Agindua.

35.229034,16 euroko kopuru osoa duen deialdi hau, Euskadin Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzeko baimenduta dauden itunpeko ikastetxeei zuzendua da, hurrengo ikasturterako ituntzeko unitateak zehaztu ditzaten, honako atal hauetan: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekian; berariazko hezkuntza-errefortzuko proiektuetan; eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan.

610 profesional

Deialdi honen bidez, itunpeko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzan eta DBHn ari diren eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko beharrezko diren profesionalak finantzatzen ditu Hezkuntza Sailak.

2018-2019 ikasturtean, 481 gela itundu dira orotara hezkuntza berezi irekian: 262 gela ireki Lehen Hezkuntzan, eta beste 219 gela ireki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Unitate horietan, orotara, 6.159 ikasle batu dira. Ikasle horiez arduratzeko, Pedagogia Terapeutikoko 481 irakasleren lana finantzatu du Hezkuntza Sailak.

Era berean, berariazko hezkuntza-errefortzuko 74 proiektu, eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko 55 programa ere itundu dira ikasturte honetan, guztiak ere Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Programa hauetarako hezkuntzako 129 profesional aritu dira lanean, hauek ere deialdi honen bidez finantzatuak.

Hezkuntza berezi irekia: Lehen Hezkuntzan zein DBHn, hezkuntza premia bereziak dituen ikaslea bere ohiko ikasgelan egon ohi da, ingurune normalizatu eta inklusiboan, eta ingurune horretan jasotzen du Pedagogia Terapeutikoko irakasleen laguntza. Horrela ulertu behar da “irekia” kontzeptua. Batez ere, desgaitasunen batetik edo jokabide-nahasketetatik eratorririko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak izan ohi dira, ikasteko zailtasunak dituztenak, hezkuntza-sisteman berandu sartu direnak, edo arreta-faltagatik desoreka dutenak, besteak beste.

Berariazko hezkuntza-errefortzuko programek errefortzu-irakaslez hornitzen dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroak, ikasle guztien osoko prestakuntzan eragingo duten hezkuntza-jardunbideak antolatzeak aukera izan dezaten. Bereziki, gizarte-egoera kaltetuekin lotuta beren curriculum-erreferentziarekiko atzerapena agertzen duten edota eskola-girora egokitzeak zailtasun larriak dituzten ikasleei zuzentzen zaie programa. Hau da, DBHko lehenengo eta bigarren mailakoak izanik, Lehen Hezkuntzako curriculum-erreferentzia agertzen duten ikasleei zuzentzen zaie. Programa honen baitan, ikasleek ikasgela arruntean ikasiko dute, beren ikaskideen irakaste-ordutegi berean.

Bestalde, **Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan**, aurrekoetan ez bezala, berariazko taldeak sortzen dira ikastetxeetan. DBHko hirugarren nahiz laugarren mailako ikasleei zuzentzen zaizkie, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako diplomadun-titulua lortzera bideratzen dira. Hain zuzen, DBHn matrikulatutako ikasle guztiek titulua lortzea bilatzen du; hartara, ikasketekin modu normalduan jarraitu ahal izan dezaten. Horretarako, 8-15 ikasle arteko taldeak eratzen dira institutuetan, eta curriculum-arloen bitartez irakasten dira ikasgaiak talde horietan: batetik, hizkuntzen eta gizartearen arloa; bestetik, zientzia eta teknologiarena. Arlo bakoitzean, erreferentziako irakasle bat ezartzen da eta hark antolatzen ditu esparru horretako ikasgaiak, modu globalagoan antolatu ere, arloko ikuspegi batetik. Hala, ikasleek bizitzan aurrera egiteko beharrezko gaitasunak bereganatuko dituzte arlo bakoitzean, eta ez dute horrenbeste jardungo ikasgaien eduki oso espezifikoei lotutakoetan.

Hezkuntza

3.430.000 EURO HEZKUNTZA-PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN ESKOLA-GARRAIORAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikastetxe publikoetan edo, salbuespen gisa, itunpeko ikastetxe pribatuetan eskolatuta dauden hezkuntza-premia berezietako ikasleentzat 2019-2020 ikasturtean eskola-garraiorako banakako diru-laguntzak deitzen dituen Agindua onartu du.

Diru-laguntza hauen jasotzaileak izango dira, ezgaitasun larriak izan (ezgaitasun fisikoa, psikikoa edo sentsoriala) eta, antolatutako eskola-garraioa edota ohiko garraio publikoa erabili ezin dezaketen ikasleak, eta hortaz, euren etxebizitzetatik eskoletara joatea erraztuko duen garraio-alternatiba bat behar dutenak. Eskola inklusiboaren aldeko printzipioari jarraiki, Hezkuntza sailak ikasle hauek ikasteko edo parte-hartzeko izan ditzaketen oztopoak ezabatu edo leundu nahi ditu deialdi honen bidez, eta eskola-garraioa ez dadila zailtasun bihurtu ikasle bakoitza ingurunerik egokienean eskolaturik egon dadin.

2018-2019 ikasturte honetan, ezgaitasunen bat zuten 940 ikasleren 130 ikastetxetarako garraioa finantzatzen da deialdi honen bidez.

350.000 EURO IKASLEEN GURASO ELKARTEEN FEDERAZIO ETA KONFEDERAZIOEN LAGUNTZETARAKO

Gobernu Kontseiluak Hezkuntza sailburuaren proposamenez, unibertsitatez besteko ikasleen guraso elkarten Federazio eta Konfederazioentzako diru-laguntzetarako deia egiten duen Agindua onartu du. Deialdi honek 350.000 euroko diru kopurua du.

Laguntzak Federazio eta Konfederazioek beharrezko dituzten azpiegitura gastuei aurre egiteko emango dira, elkarten laguntza eta aholkularitza gastuei aurre egiteko, gurasoen formakuntza jarduerak eragindako gastuei aurre egiteko, edo ikasleei zuzendurik elkarte horiek antolaturiko eskolaz kanpoko jardueretarako. Ekintza hauek guztiek 2019an burutuak izan beharko dute. Gehienez jardueraren kostuaren %50 ordaindu ahal izango da laguntza hauen bidez.

Hezkuntza

435.890 EURO IKASLE IJITOEI ZUZENDUTAKO HEZKUNTZA-JARDUERETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran agindu bat onartu du eta agindu horren bidez irabazi asmorik gabeko zenbait erakunderi dei egiten zaie, hain zuzen ere, eskolaren esparruan ikasle ijitoei zuzendutako hezkuntza-jarduerak garatzeko Hezkuntza Sailarekin elkarlanean aritu nahi dutenei 2019-2020 ikasturtean.

Agindu honek, 435.890 euroko aurrekontuarekin, 2019-2020 ikasturtean ondorengo helburuak lortzeko egingo diren jarduerak diruz laguntzea du helburu: ikasle ijitoen errendimendu akademikoa hobetzea, gero eta ikasle ijito gehiagok lortzea eskola-arrakasta, eta hauen familiek gehiago parte hartzea eskolan antolaturiko bileretan nahiz bestelako jardueretan.

Deialdi honen bidez bultzatzen diren hezkuntza-jarduerak, ikasle ijitoei zuzenduak eta irakasleekin lankidetzan gauzatuko direnak, honako hauek izan daitezke:

-Ikasgelan bertan eta ikasgelatik kanpo irakaskuntza-indargarri diren jarduerak, eskolaratze-ikuspuntutik, eta, ikasleak klaseko martxa jarrai dezan lagungarriak.

-Ikastetxearekin lankidetzan aritzea, ikaskuntza hobetzen laguntzen duten eskola-programetan eta eskolatik kanpoko programetan, ikasle ijitoei jarduera horietan gehiago parte hartu dezaten.

-Ikasleen banakako segimendua, tutoreekin lankidetzan

-Ijito-herria ikastetxe barruan bistaratzen lagunduko duten jarduerak.

-Ikasle ijitoen arrakasta sustatzen eta zabaltzen dutenak; esaterako, ikastetxera eskola-arrakasta izan duten ijitoak eramatea

-Familiek euren seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzea sustatzen duten jarduerak.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 580.000 EURO ONARTU DITU MUSIKA JARDUERA PROFESIONALAK DIRUZ LAGUNTZEKO

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza hauen bitartez iaz 67 proiektu lagundu ziren; deialdi honek iaz baino 50.000 euro gehiago izango ditu aurten**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2019an musika jarduera profesionaletarako dirulaguntzak onartu ditu bere gaurko saioan. Aurten, 580.000 euroko bideratuko dira musika ekitaldiak sustatzera eta, oro har, musika lanak garatu edo zabaltzera. Deialdiak iaz baino 50.000 euro gehiago izango ditu aurten, musika-zikloak antolatzeko modalitate berri bat sortu baita.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako deialdi honek bost modalitate izango ditu aurten, guztien helburua delarik Euskadiko musikaren arloa bultzatzea:

- **Partitura inprimatuak argitaratzea:** Euskal musikarien partiturak editatzeko dirulaguntzak. Modalitate honek 30.000 euroko aurrekontua du.
- **Musika proiektu unitarioak:** Dirulaguntza lerro honen bitartez musika-proiektuen ekoizpena eta promozioa sustatuko da, bai eta sentiberatze jarduerak edota euskal musikaren inguruko ikerketa eta difusioa ere. Musika sektoreko eragileen etengabeko prestakuntza ere lagunduko da. Modalitate hau musika proiektu propioak kudeatzen dituzten talde eta eragileei zuzenduta dago eta 155.000 euroko aurrekontua du.
- **Musika ekimen enpresarialak: Bigarren modalitatearen kasuan bezala, modalitate honen bitartez** musika proiektuen ekoizpena eta promozioa sustatuko da, bai eta sentiberatze jarduerak edota euskal musikaren inguruko ikerketa eta difusioa ere. Bigarren modalitatearen bidez bezala, musika sektoreko eragileen etengabeko prestakuntza ere lagunduko da. Modalitate hau musika proiektu desberdinak kudeatzen dituzten eragileei zuzendua da (batez ere disketeak) eta 205.000 euroko aurrekontua du.
- **Zuzen-zuzenean zirkuitua:** Modalitate honen helburua da euskal musika taldeen programazioa bultzatzea musika areto pribatuetan. Modalitateak izena aldatu du iaztik (lehen 'musika programazioa' deitzen zen) eta 140.000 euroko aurrekontua izango du.
- **Musika zikloak:** Modalitate berri honen bitartez musika zikloen antolaketa lagunduko da. 50.000 euro bideratuko dira modalitate honetara.

Dirulaguntza hauen bitartez iaz 67 musika proiektu profesional lagundu ziren: partituren modalitatearen bidez, 4; bigarren modalitatearen bidez, 35; enpresa proiektuetarako modalitatearen bidez, 15; eta, azkenik, 13 laguntza bideratu ziren euskal musika taldeen programazioa sustatzera areto pribatuetan.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 25.000 EUROKO DIRULAGUNTZA ZUZENA ONARTU DU EUSKAL IRUDIGILEAK ELKARTEARENTZAT, IRUDIKA ILUSTRATZAILEEN TOPAKETA ANTOLA DEZAN

- **Aurtengo edizioa urriaren 24an, 25ean eta 26an izango da, eta nazioarteko eragileek hartuko dute parte**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 25.000 euroko dirulaguntza zuzena onartu du, bere gaurko saioan, Euskal Irudigileak elkartearentzat, Irudika Ilustratzaileen Nazioarteko Topaketa Profesionalaren hirugarren edizioa laguntzeko. Jardunaldi hauen bitartez ilustrazioaren arloa garatu nahi da Euskadin eta kultura eta sorkuntzaren esparrua indartu nahi da Araban.

Irudika Nazioarteko Topaketa 2017an sortu zen eta helburua da nazioarteko profesionalak bilduko dituen erreferentziazko zita bat finkatzea. Jardunaldi hauen bidez profesionalak etengabeko formazioa eskaintzen zaie, nazioarteko eragileen eskutik antolatzen diren hitzaldi eta tailerren bitartez. Hiru egunetan zehar era askotako ekimenak antolatzen dira; hala nola, eztabaidak, mahai-inguruak, tailerrak, elkarrizketa profesionalak eta antzeko zitak (networking-ak) edota erresidentzia artistikoak.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren babesaz gain, ekimen honek Arabako Foru Aldundiaren, Gasteizko Udalaren edota Artium Museoaren babesa ere badauka, besteak beste. Zita honek erreferentzia-gunea bilakatzen du Gasteiz egun horietan zehar; aurtengo urriaren 24an, 25ean eta 26an izango da. Aurtengo edizioan Hego Korea, Erresuma Batua eta Argentinako hizlariak izango dira. Horrez gain, bestelako jardueren artean, Irudikak bost tailer sorpresa antolatuko ditu, eta horien bitartez bertaratutako irudigileek ez dute jakingo zein izango den beren formazioa hobetzen lagunduko dien aditua.

Segurtasuna

GOBERNU KONTSEILUAK DBA BILBAO PORT SL ENPRESAREN KANPOKO LARRIALDETAKO PLAN ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak Bizkaiko Zierbena herrian eta Bilboko Portuko instalazioen barruan dagoen DBA BILBAO PORT SL enpresaren Kanpoko Larrialdietako Plana onartu du.

Plan horrek jada aldeko irizpena jaso zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Babes Zibilerako Batzordeak egindako bileran, eta EHAAn argitara eman zen.

DBA BILBAO PORT SL hidrokarburoak (gasolioa, gasolina etab.) biltegitatzeko eta banatzeko instalazio logistiko bat da.

Kanpoko Abran, Punta Sollanan, kokatuta egoteak ziurtatzen du istripu bat izanez gero eragin txikia izango duela hiriguneetan.

Horrekin jada 30 dira EAEn era honetako plan bat duten establezimenduak.

Presidencia

AYUDA AL BASQUE CENTER FOR APPLIED MATHEMATICS PARA EL DESARROLLO DE DOS PROYECTOS EN INTELIGENCIA ARTIFICIAL

- **El BCAM está reconocido como un Centro de Excelencia y tiene como misión el desarrollo de investigación en la frontera del conocimiento de las matemáticas y su aplicación en diferentes campos, entre ellos la inteligencia artificial**

El Consejo de Gobierno ha acordado conceder una subvención de 975.mil euros al *Basque Center for Applied Mathematics – BCAM*. La ayuda -que será otorgada por el Fondo de Innovación gestionado por Lehendakaritza- servirá para que este centro desarrolle dos proyectos de investigación en Inteligencia Artificial durante 2019 y 2020.

El BCAM fue promovido por el Gobierno Vasco en 2008 y tiene como misión fortalecer el Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, mediante la realización de investigación interdisciplinaria en las fronteras de las matemáticas; así como la formación y atracción de personas científicas de talento, de modo que la excelencia de sus resultados sea reconocida por la sociedad.

En la actualidad, el centro está considerado como Agente acreditado de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, dentro de la categoría de ‘Centros de Investigación Básica y de Excelencia’. Además, ha sido reconocido oficialmente como Centro de Excelencia “Severo Ochoa” por la Agencia Estatal de Investigación, dependiente del Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades.

En concreto, la ayuda aprobada hoy -estimada en 975.653 euros- será destinada al desarrollo de dos proyectos de investigación en las áreas de la salud y la energía, dos de las prioridades actuales de la estrategia de especialización inteligente RIS3 Euskadi y del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación (PCTI Euskadi 2020) del Gobierno Vasco.

Ambos proyectos buscan fortalecer el posicionamiento internacional de Euskadi en materia de Inteligencia Artificial, considerada como una de las tecnologías clave emergentes que con mayor rapidez está irrumpiendo en la economía y sociedad actuales.

Presidencia

CONVOCADO EL PREMIO *RENÉ CASSIN* DE DERECHOS HUMANOS

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy la convocatoria para este año del Premio *René Cassin* que concede el Ejecutivo vasco, a través de la Dirección de Víctimas y Derechos Humanos.

El objetivo de este premio es reconocer públicamente y premiar a aquellas personas o colectivos que, a través de su trayectoria personal o profesional, dan testimonio de su compromiso en la promoción, defensa y divulgación de los derechos humanos en nuestra sociedad.

Podrán optar a este premio, dotado con 12.000 euros y una distinción honorífica, todas aquellas físicas o jurídicas, públicas o privadas que se destaquen en este ámbito.

El plazo de presentación de las candidaturas es de un mes, a partir del día siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial del País Vasco.

El premio fue creado por el Gobierno Vasco en 2003 y debe su nombre a René Cassi, jurista y juez nacido en Bayona en 1887, considerado como el principal inspirador de la Declaración Universal de los Derechos Humanos y merecedor en 1968 del Nobel de la Paz, premio que consagró a la creación del Instituto Internacional de Derechos Humanos de Estrasburgo.

El *René Cassin* será entregado el 10 de diciembre, día en el que se conmemora la Declaración Universal de Derechos Humanos.

Desarrollo Económico e Infraestructuras

1,25 MILLONES PARA LA DIVERSIFICACIÓN DE CULTIVOS EXTENSIVOS BAJO TÉCNICAS DE PRODUCCIÓN AGRÍCOLA SOSTENIBLE

